

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

1973

486/2022 EBAZPENA, martxoaren 24koa, Bilbo-Basurtuko Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari-gerentearena, zeinaren bidez Arantza Mendizábal Abad andrea Hematologiako Zerbitzu Sanitarioko Burua kargutik kendu egin den Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Bilbo-Basurtuko Erakunde Sanitario Integratuan, berak hala eskatuta.

1887/2020 Ebazpenaren bidez, Arantza Mendizábal Abad andrea izendatu zen Hematologiako Zerbitzu Sanitarioko Burua Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Bilbo-Basurtuko ESlan (2020ko abenduaren 18ko EHAA 253. zk.).

Ekainaren 26ko 8/1997 Legea, azaroaren 11ko 255/1997 Dekretua eta aplikatzekoak diren gainerako xedapenak ikusita, Zuzendaritza Gerentzia honek

EBAZTEN DU:

Lehenengoa.– Arantza Mendizábal Abad andrea Hematologiako Zerbitzu Sanitarioko Burua kargutik kentzea, berak hala eskatuta, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Bilbo-Basurtuko ESlan; eta eskerrak ematea egindako lanagatik.

Bigarrena.– Ebazpen honek 2022ko martxoaren 21etik aurrera izango ditu ondorioak.

Hirugarrena.– Ebazpen hau EHAA n argitaratzea eta haren berri ematea interesdunari eta Arabako ESlari.

Laugarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Zuzendaritza Nagusiari, hilabeteko epean, Ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Bilbao, 2022ko martxoaren 24a.

Bilbo-Basurtuko ESlko zuzendari-gerentea,
JESÚS MARÍA LARRAÑAGA GARITANO.